# Atabal

JANVIER-MARS
URTARRILA-MARTXOA
2019



Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# Le mot de la Présidente Lehendakariariaren hitza

La labellisation SMAC de l'ATABAL par le Ministère de la Culture en Septembre 2018 a été une magnifique reconnaissance du travail réalisé par l'équipe salariale, accompagnée et soutenue par le conseil d'administration.

Nous sommes heureux de voir une démarche commencée il y a plusieurs années aboutir ainsi. Cette certification prouve que la mission publique du projet est bien remplie, et la met en valeur.

Savoir que nous pouvons momentanément ressentir une petite fierté, celle d'être dans le vrai pour la structure, en gardant en tête que nous y participons tous, chacun à notre façon.

Et pour vous...? Peut-être que vous savez également un peu plus que non seulement vous pouvez découvrir des artistes tout au long de l'année, mais que vous participez aussi à une autre aventure humaine, celle d'un maillage territorial autour de la pratique et l'apprentissage musical, celle d'une autre expérience de notre territoire, en collaboration avec d'autres, des structures et associations.

Peut-être avez-vous plus conscience aujourd'hui qu'ici se joue une mission publique. Et si nous la résumions par la simple occasion de vivre ensemble quelque chose de commun.

Sylvie Claracq
Présidente d'Atabal
Déléguée à la Jeunesse et à la Vie Scolaire de Biarritz

2018ko irailean, kultura ministerioak ATABALi SMAC labela ematea onetsi zuen. Langile taldeak eta administrazio kontseiluak egin lanaren ezagupen zoragarria izan da.

Arras pozik gara duela zenbait urte abiatutako egitasmoa honaino heldu dela ikusteaz. Honek frogatzen du proiektuak bere eginkizun publikoa ontsa betetzen duela. Proiektuaren balioa agerian ezartzen du.

Instant batez harro sentitzen ahal gara. Izan ere, egitura bide onetik doa. Eta denek parte hartzen dugu horretan, bakoitzak bere heinean eta bere maneran.

Eta, zuek zer? Menturaz orain badakizue urte osoan artista batzuk ezagutzen ahal dituzuela, baina, haratago ere, giza abentura baten parte zaretela: musikaren praktika eta ikasketaren inguruan lurraldea egituratzen eta saretzen duen abentura da hau, gure lurraldea beste gisa bizitzeko parada eskaintzen duena, besteekin – egiturekin eta elkarteekin – elkarlanean.

Menturaz orain ohartu zarete eginkizun publikoa dela jokoan. Eta eginkizun hori, hitz gutxitan, elkarrekin zerbait bizitzeko aukera xumea ematea da.

Sylvie Claracq
Atabaleko lehendakaria
Biarritzeko Eskolako bizia eta Gazteria arduraduna

*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren Arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Infographie* **Malvina Hubert** *Infografia*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **www.imprimerie-ibt.com** *Inprimatzea*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave - D. Pernaud** *Argazkiak*

*Visuel Couverture* **Ana Pagola** *Azaleko Irudia* ***anapagola.com***
*Avec l'aimable autorisation de la Mairie de la Ville d'Hossegor. Hossegor-eko Herriko Etxearen baimenarekin*
*L'oeuvre Pina Colada est exposée à l'Hôtel de Ville de Hossegor. Pina Colada obra Hossegor-eko Herriko Etxean erakutsia da.*
*©Fonds culturel de la Ville d'Hossegor ©Hossegor-eko Herriko Etxearen kultura funtsak*

**Atabal** 37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr

# GILEN



**GILEN** tient en équilibre et investit un monde imaginaire, saltimbanque, et visionnaire.

Bref un monde permanent...

Approche absurde et burlesque, GILEN caricature le superficiel pour mieux consentir à la profondeur. La peinture reste pour lui une zone de réflexion temporaire qui titube sur des territoires (im)parfaits !

Ces portraits mixés dans le désordre universel, du «crados» au bucados, en passant par Dionysos et Carlos, il n'y a qu'un temps: celui du vivant.





**GILEN** orekan dago. Zirku-akrobata bat bezala, irudimenezko eta ikusmen handiko mundu batean murgiltzen da.

Mundu iraunkor batean, funtsean...

GILENek, ikusmolde absurdo eta burleskoarekin, barne-barnekoa agerrarazteko asmoz, azalekoaren karikatura egiten du. Harentzat, margolaritza lurralde (ez)perfektuetan zalantzati dabilen gogoetarako eremua da!

Haren potretak unibertsoaren desordenaren isla dira. Zikin-zikinetik eta izkin-izkinatik, Dionysos, Carlos eta beste anitz irudikatzen ditu. Denen artean lotura nagusi bat dago: biziarena.

**Exposition du Jeudi 06 Décembre au Samedi 09 Février**

**Erakusketa abenduak 06 ostegunetik otsailak 09 larunbatera**

## DIMANCHE 13 JANVIER 09:00-18:00 URTARRILAK 13 IGANDEA




©Lily Munch

I gratuit urririk

# SALON DU DISQUE #10 DISKO AZOKA

Depuis maintenant 10 ans le Salon Du Disque est LE rendez-vous de la musique et du vintage. Disquaires, labels et libraires régionaux se retrouvent durant cette journée pour partager leur passion. Venez fêter les 10 ans du Salon avec concerts et chasse aux trésors au programme! Badu orain 10 urte Disko Azoka musikaren eta vintage kulturaren hitzordu nagusia dela. Egun hartan, eskualdeko disko saltzaileak, diskoetxeak eta liburu saltzaileak elkartzen dira eta beren zaletasuna partekatzen dute. Zatozte Disko Azokaren 10. urtebetetzea ospatzera! Kontzertuak, musika etzanaldiak eta altxor ihizia izanen dira!

**SIESTES SONORES MEDITATION IS ART MUSIKA ETZANALDIAK**
Aventure sensorielle comme un tourne-disque offrant un morceau de relaxation au naturel. Kantu lasaigarriak zuzenean entzuteko eta geldirik bidaiatzeko eta lasaitzeko parada.
*20 min - gratuit sur réservation urririk baina lekua erreserbatu behar da*
*4 séances 4 saio 10:00 11:00 14:00 15:00 +3 ans / adultes +3 urte / helduak*

**CONCERTS KONTZERTUAK**
15:00 **JACKSON BROWN** - 16:00 **JOOLS**

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
servicecivique projets@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29



SAMEDI 19 JANVIER 21:00 URTARRILAK 19 LARUNBATA

# ANESTESIA
## + KUMA NO MOTOR + ESTRICALLA




### ANESTESIA
Le groupe fête ses 30 ans d'existence et les 25 ans de l'album ***Gorrotoaren Ahotsa*** qui a marqué l'histoire du groupe. Ils reviennent aujourd'hui avec la sortie d'une version limitée et remasterisée de l'album en vinyle et seront en tournée à travers le Pays Basque.

### KUMA NO MOTOR
**KUMA NO MOTOR** envoie un punk hardcore brutal façon vieille école. En basque ou en anglais, avec des influences à chercher autant dans le hardcore 80's américain que dans le d-beat suédois, leur live est une explosion de puissance brute.

### ESTRICALLA
**ESTRICALLA** jouent un punk-hardcore militant depuis 2009. Ils présenteront leur dernier album ***Dramatik-thlon***, qui dessine une évolution dans leur son. Des chansons d'amour et de destruction, pour un live détonnant.

### ANESTESIA
Aurten taldeak 30 urte betetzearekin batera, bere historian mugarri izan den ***Gorrotoaren Ahotsa*** diskoak 25 betetzen dituela ere ospatu nahi du. Diskoaren berrargitalpen berezi batekin dator, berriz masterizatuta, 180 gramoko biniloan. Eta, karia horretara, Euskal Herrian bira bat antolatu du.

### KUMA NO MOTOR
Baionako hirukoteak eskola zaharreko hardcore-punk musika jotzen du. Estatu Batuetako 1980ko hamarkadako hardcorea edo Suediako d-beat musikaren artean, taldearen zuzenekoak arras leherkorrak dira.

### ESTRICALLA
**ESTRICALLA** taldeak 2009tik punk-hardcore militantea jotzen du. ***Dramatik-thlon*** azken diskoa aurkeztuko du, taldearen bilakaeraren isla den lana. Maitasun eta sarraski abestiak eta zuzeneko harrigarria.

METAL
EH

*Dut*
*Negu Gorriak*

10€ / 7€ (adh-kide) en loc-aurretik
13€ / 10€ (adh-kide) sur place-bertan

# Petits Plus Gehigarriak

## WE ARE THE BAND




### INFORMATIONS ARGIBIDEAK

**JEUDI 24 JANVIER 19:30 - 20:30 URTARRILAK 24 OSTEGUNA**

***Vous souhaitez en savoir plus sur le projet ou rencontrer d'autres participants ?*** Retrouvez l'équipe d'LMA pour un temps d'information sur We are the band. ***Proiektuari buruz gehiago jakin edo beste parte hartzaile batzuekin topo egin nahi duzue?*** We are the band proiektuari buruzko xehetasunentzat, LMA elkarteko langile taldea kausitu.

Inscriptions Izen-emateak lma-festik.net

### RÉPÉTITIONS ENTSEGUAK

Atabal propose aux musiciens inscrits au projet WE ARE THE BAND, en plus des répétitions proposées par LMA, de venir répéter dans nos studios en étant encadré par des membres de l'équipe artistique. Atabalek, WE ARE THE BAND proiektuan izena eman duten musikariei, LMA elkarteak proposatu entseguez gain, gure estudioetan errepikatzera etortzeko eta talde artistikoko kideen laguntza jasotzeko proposamena luzatzen die.

Dates Egunak
Samedi 26 janvier Urtarrilak 26 larunbata *17:00-18:30*
**Samedi 09 février Otsailak 09 larunbata** *horaire à définir ordutegia zehazteko*
*(répétition générale grande salle - azken entsegua agertoki handian)*
Samedi 02 & 23 mars Martxoak 02 eta 23 larunbata *17:00-18:30*
Samedi 23 avril Apirilak 23 larunbata *17:00-18:30*
Samedi 25 mai Maiatzak 25 larunbata *17:00-18:30*

Inscriptions et renseignements Izen-emateak eta argibideak
yann@atabal-biarritz.com / 05 59 41 73 22

**www.wearetheband.fr**



# Café Concert Kafe Kontzertua

## JEUDI 24 JANVIER 20:30 URTARRILAK 24 OSTEGUNA



POST PUNK

I gratuit urririk

# JESSICA93 + BLACK SALVATION + YGGL

Présenté par **ATABAL** & **MUSIQUE D'APÉRITIF**-ek aurkezturik

**JESSICA93** Héritier de **The Cure**, de **Nirvana** ou des **Bérus**, **JESSICA93** débarque avec ***Guilty Species***, son dernier album. Entre désenchantement et déchaînement, avec une puissance toujours plus ébouriffante et une plume trempée dans l'encre noire. **The Cure**, **Nirvana** edo **Bérurier Noir** taldeen iturrietatik edan du. ***Guilty Species*** disko berriarekin dator, desilusioaren eta haserraldiaren artean, indar harro-harroarekin eta tinta beltzean busti lumarekin.

**BLACK SALVATION** Inclassable groupe Allemand mélangeant diverses influences comme le hard rock, le psyché ou le grunge. Alemaniako talde sailkaezina da. Hard rocka, musika psikodelikoa edo grunge musika uztartzen ditu.

**YGGL** est un projet de one man band improvisé cold grunge lo-fi de Biarritz. **YGGL** Biarritzeko cold grunge lo-fi bakarlari-talde proiektu inprobisatua da.



# SAMEDI 26 JANVIER 21:00 URTARRILAK 26 LARUNBATA

# AGAR AGAR

## + LEE ANN

Présenté par **CRACKI RECORDS** & **PEDRO BOOKING**-ek aurkezturik



**AGAR AGAR**

Après plusieurs apparitions live remarquées, **AGAR AGAR** remporte le concours des **Inrocks Lab** en 2016.
Depuis, les deux acolytes ont sorti leur premier Ep ***Cardan*** et nous ramène à un son «early warp», quelque part entre **Daniel Maloso**, **Black Devil Disco Club** et **Ariel Pink**. À mi-chemin entre influences pop et techno, **AGAR AGAR** cultive le désinvolte tout en restant élégant.

**LEE ANN**

Née à Biarritz avec une planche de surf sous les pieds et une guitare dans les mains, **LEE ANN** vacille entre ces 2 univers depuis toujours. Elle a aujourd'hui trouvé son équilibre, puisant son inspiration à travers ses pérégrinations iodées. Voyages et expériences oniriques entre deux vagues, dans une pop instinctive et aquatique.

**AGAR AGAR**

Kontzertu ohargarri batzuk eman ondotik, 2016an, **AGAR AGAR** taldeak **Inrocks Lab** lehiaketa irabazi zuen.
Orduz geroztik, bi lagunek ***Cardan*** izeneko lehen EPa argitaratu dute. Warp diskoetxearen hastapeneko soinuetara garamatzate, **Daniel Maloso**, **Black Devil Disco Club** eta **Ariel Pink** artisten artean, nonbait. Pop eta tekno eraginen artean, **AGAR AGAR** taldeak axolagabekeria eta dotorezia lantzen ditu.

**LEE ANN**

Biarritzen sortu zen, surf taula batekin oin pean eta gitarra batekin esku artean. Betidanik, bi munduren artean dabil. Gaur egun, bi zaletasunen arteko oreka atzeman du. Musika sortzeko inspirazioa olatuetan egiten dituen joan-etorrietan aurkitzen du. Bi uhinen arteko ametsetako bidaia eta esperientzia. Senezko pop musika.

ELEKTRO
POP

*Polo & Pan*
*Flavien Berger*

19€ / 16€ (adh-kide) en loc-aurretik
22€ / 19€ (adh-kide) sur place-bertan

©Racket

VENDREDI 01 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 01 OSTIRALA

# BRNS x ROPOPOROSE [NAMDOSE] + BONDURAN

Présenté par **LANDES MUSIQUES AMPLIFIÉES**, **MACS** & **ATABAL**-ek aurkezturik



## BRNS x ROPOPOROSE [NAMDOSE]

Crée à l'occasion des **Nuits du Botanique**, le projet **BRNSRPPRS** est un mix séduisant entre la power-pop bruxelloise de **BRNS** et l'indie pop mélancolique des Vendômois de **ROPOPOROSE**. On y entend des touches de **Deerhoof**, **Battles**, **Electric Electric**, **Blonde Readhead**, **Grandaddy**, et qui mises bout à bout font de ce «super groupe» l'un des shows à voir absolument cette année. Un premier album est prévu pour début 2019.

## BONDURAN

**BONDURAN**, quatuor originaire de Hossegor, s'affirme dans un rock instrumental captivant qui se suffit à lui-même. Nourri d'influences telles que **And So I Watch You From Afar** ou encore de **The Redneck Manifesto**, le groupe déploie toute son énergie sur scène et réussit à vous embarquer dans son tourbillon musical frénétique.

## BRNS x ROPOPOROSE [NAMDOSE]

**BRNSRPPRS** proiektua **Nuits Botanique** festibalaren karietara sortu zen. **BRNS** Bruselako power-pop taldearen eta **ROPOPOROSE** Vendôme hiriko indie pop talde malenkoniatsuaren arteko nahasketa xarmagarria da. **Deerhoof**, **Battles**, **Electric Electric**, **Blonde Readhead** eta **Grandaddy** taldeen eraginak ditu. «Super talde» horrek aurten absolutuki ikusi behar den kontzertuetarik bat emanen du! Lehen diskoa 2019 hastapenean argitaratuko du.

## BONDURAN

Hossegorreko laukotea da. Rock instrumental liluragarria jotzen du, beste ezeren beharrik ez duena. **And So I Watch You From Afar** edo **The Redneck Manifesto** taldeen eragina jaso du. Bonduran taldeak indar guzia oholtza gainean jartzen du eta eromenezko musika zurrunbiloan murgiltzen gaitu.

MATH ROCK

*- PÔLE SUD ST-VINCENT-DE-TYROSSE -*

*BRNS*
*Balthazar*

9€ / 6€ (adh-kide) en loc-aurretik
12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan

*©Boris Görtz*

## SAMEDI 02 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 02 LARUNBATA

# DUB MACHINIST, GARY CLUNK, HATMAN, I-TIST MEETS EQUAL BROTHERS

Présenté par **EQUAL BROTHERS** & **ATABAL**-ek aurkezturik






Lors de chaque session, **EQUAL BROTHERS** invite des collectifs et des artistes de la scène dub européenne.

Pour cette nouvelle rencontre, nous vous proposons un dub fi dub familial avec 4 phénomènes bordelais : **DUB MACHINIST**, **GARY CLUNK**, **HATMAN** et **I-TIST**.
Un morceau chacun toute la soirée et tous derrière la tour de contrôle pour l'animation.

**DUB MACHINIST, GARY CLUNK**, **HATMAN** et **I-TIST** sont issus de la scène Dub bordelaise de la fin des années 90. Ils font partie des acteurs majeurs de l'élaboration du «French Dub» et de l'émergence de la culture sound system en France. Riddim maker, selecter, producteur, MC... ils peuvent jouer tous les rôles du sound man. Ils arrivent avec plus de 20 ans de sélections, dubplates et productions pour enflammer le dancefloor, avec une énergie contagieuse.

Saio bakoitzean, **EQUAL BROTHERS**-ek Europako dub eszenako artista eta kolektiboak gonbidatzen ditu.

Saio berri honetan, familia arteko Dub Fi Dub bat proposatzen dizue, Bordeleko lau fenomenorekin: **DUB MACHINIST**, **GARY CLUNK**, **HATMAN** eta **I-TIST**.
Gaualdi osoan bakoitzak kantu bat jarriko du eta platinen gibelean lauak ariko dira besta animatzen.

**DUB MACHINIST**, **GARY CLUNK**, **HATMAN** eta **I-TIST** Bordeleko dub eszenatik jalgi ziren, 1990eko hamarkada bukaeran. «French Dub» musikaren eta Frantziako sound system kulturaren eragile nagusiak izan ziren.
Riddim maker, mixer, selecter, producer, MC... lau artistek maisuki lantzen dute soinua. Badu 20 urte baino gehiago kantuak hautatzen, nahasten eta ekoizten dituztela eta energia ikaragarriarekin dantzalekuak sutan jartzen dituztela.

SOUND SYSTEM
DUB REGGAE

♥♥♥
*Aba Shanti*
*Dub Incorporation*

7€ en loc-aurretik // 10€ sur place-bertan
gratuit (adh-kide) urririk

EQUAL BROTHERS

*gratuit urririk*
*(adh-kide)*



**VENDREDI 15 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 15 OSTIRALA**

# ODEZENNE
## + MOUSSA



**ODEZENNE**
Après ***Dolziger St. 2*** en 2015 et le succès des tournées «à la demande», **ODEZENNE** revient avec ***Au Baccara***. Nouvelle pièce d'un puzzle chanson-rap qui s'assemble disque culte après disque culte depuis dix ans. Précurseur du genre, le groupe accouche une nouvelle fois d'un album singulier et continue de préciser sa signature, en dehors des habitudes. Un nouvel album qui impose avec joie son propre style. Entre la verve du quotidien, l'émotion ciselée des paroliers, et les rythmes dansants de notre époque électronique. Le public attend désormais avec impatience de savoir à quelle sauce ils vont être mangés.

**MOUSSA**
Les influences de **MOUSSA** vont du hip hop au rock en passant par la musique électronique. Un métissage que l'on peut définitivement ressentir dans sa musique.

**ODEZENNE**
2015ean ***Dolziger St. 2*** argitaratu eta gero, «À la demande» eskaeraren araberako kontzertuen arrakastaren ondotik, taldeak ***Au Baccara*** diskoa argitaratzen du: «chanson-rap» puzzlean, pieza berri bat. Badu hamar urte disko kultuak bat bestearen ondotik argitaratzen dituela. Genero berezi horren aitzindaria da Odezenne. Beste behin, disko berezia eskaintzen digu. Usaiako musikaren ertzetatik, nortasun handiko lana eskaintzen digu. Disko berria, estilo berezia eta alaia. Eguneroko gogo bizitasuna, kantariek artoski landu hitzen emozioa eta gaur egungo erritmo dantzagarri elektronikoak. Publikoa zer ikusiko eta entzunen duen jakiteko irrikan dago.

**MOUSSA**
Eragin anitzak ditu: hip-hop, rock eta musika elektronikoa. Nahasketa hori bere musikan argiki entzun daiteke.

CHANSON
HIP HOP

©Edouard Nardon & Clement Pascal

*Gaël Faye*
*Klub Des Loosers*

20€ / 17€ (adh-kide) en loc-aurretik
23€ / 20€ (adh-kide) sur place-bertan

DIMANCHE 17 FÉVRIER 20:00 OTSAILAK 17 IGANDEA

# GEORGIO



**GEORGIO**
Après le succès de son précédent album ***Héra*** (80 000 ex. écoulés) accompagné d'une tournée (100 dates, un Olympia plein à craquer et tous les gros festivals), **GEORGIO** a pris son temps à l'écart des réseaux sociaux pour travailler la suite de son projet. Il présente aujourd'hui 15 nouveaux titres mêlant son rap nerveux et poétique à des productions modernes et puissantes, le tout réalisé par **Myd** (**Club Cheval/Ed Banger**).
Ce nouvel album, intitulé *XX5*, pour 25 ans, âge symbolique de toute vie, fait également l'objet de collaborations aussi prestigieuses qu'inattendues avec entre autres **Woodkid**, **Vald**, **Isha** ou encore **Victor Solf**.

**GEORGIO**
***Héra*** izeneko aurreko diskoarekin arrakasta ederra ukan zuen (80 000 disko saldu ditu!) eta kontzertu andana eman zituen (Olympia jendez bete zuen eta festibal handienetan jo zuen). Gero, bere proiektua ontzeko, denbora batez sare sozialetatik urrundu zen.
Egun, **GEORGIO**k **XX5** diskoa eta 15 kantu berri aurkezten ditu. Usaiako rap zaintsua eta poetikoa **Myd** ekoizlearen (**Club Cheval/Ed Banger**) ekoizpen moderno eta indartsuekin uztartu du.
Kantariak 25 urte ditu orain, adin sinbolikoa. Kolaboratzaile anitz izan ditu diskoan, itzal handiko izenak guztiak: **Woodkid**, **Vald**, **Isha** edo **Victor Solf**, besteak beste.

RAP

♥♥♥
*Nekfeu*
*Orelsan*

25€ / 22€ (adh-kide) en loc-aurretik
28€ / 25€ (adh-kide) sur place-bertan

# Petits Plus Gehigarriak

## VENDREDI 01 MARS 12:00 MARTXOAK 01 OSTIRALA




©Sebastien Decoret

# LE GRAND LIVE #6

***Serez-vous prêts pour vous envoyer en l'air ? Plazerra hartzeko prest?***

Telle une sonde qui se poserait sur Mars, Le Grand Live aura pour sa 6e édition, la mission d'explorer différents univers du spectacle, de la musique, de l'événement culturel, associatif et de l'économie locale. Le Grand Live-en 6. edizioaren helburua ikuskizunaren, musikaren, kultur gertakariaren, elkarte munduaren eta tokiko ekonomiaren ikertzea izanen da, Marte planetan pausatuko litzatekeen espazio ontzi batek egingo lukeen bezala.

Aux micros de la station éphémère, les radionautes David, Franck, Régis, Cassou et JR, vous feront vivre en direct cet événement radiophonique, depuis leur «studio soucoupe» posé dans les locaux de Atabal, duquel, ils recevront invités, artistes, extra-terrestres, acteurs de la vie associative et économique de Biarritz et alentours. Mikrofonotik irratsaio iragankorra animatuko dutenak David, Franck, Régis, Cassou eta JR izanen dira. Gertakaria beren « estudio hegalaritik », Atabaleko egoitzatik, zuzenean biziaraziko dizuete. Gomitak, artistak, estralurtarrak eta Biarritzeko eta inguruko elkarte eta ekonomia munduko eragileak errezibituko dituzte.

Avec show case, show radio, artistes, djs en live, invités surprises, cette édition promet 48h de radioactivité et de voyage mystérieux sur les ondes, les 1er, 2 et 3 mars 2019 ! Promozio-kontzertuak, irrati-kontzertuak, artistak eta DJak zuzenean, gomita sorpresak eta arraileriak, irriak eta zozokeriak... 6. edizioa 48 oreneko irratsaioa eta uhinetako bidaia misteriotsua izanen da, 2019ko martxoaren 1ean, 2an eta 3an!

L'image et le son en direct sur **www.le-grand-live.com** Irudia eta soinua zuzenean webgunean.



# Stages Vacances Oporretako Ikastaldiak

**Lundi 18 au Vendredi 22 Février** // **Otsailaren 18tik 22ra, astelehenetik ostiralera**



## ÉVEIL MUSICAL

***3 ans 9h30>10h30 // 4 - 5 ans 10h30>11h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Mathilde Deshaires

S'éveiller à la musique c'est aussi se découvrir des aptitudes d'écoute, d'expression vocale et instrumentale. Vos enfants s'approprient le rythme à travers leur corps, les mélodies et les sons qu'ils entendent et qu'ils produisent. Lors des stages ils pourront aussi confectionner leurs propres percussions ! Tous pourront découvrir entre autres la guitare, le ukulélé, la batterie et le clavier.

## LEHEN HURBILTZEA

***3 urtekoak 09:30>10:30 // 4 - 5 urte artekoak 10:30>11:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Mathilde Deshaires-ek animaturik

Musikara hurbiltzea entzumen, ahozko adierazpen eta musika tresnak jotzeko gaitasunak deskubritzeko parada da. Zuen haurrek entzuten eta sortzen dituzten melodiak eta soinuak gorputzaren bidez erritmoan adieraziko dituzte. Ikastaldi denboran beren perkusioak fabrikatzen ahalko dituzte! Denek gitarra, ukulelea, bateria eta teklatuak ezagutuko dituzte.



## INITIATION MUSICALE

***6 - 9 ans // 11h30>12h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Mathilde Deshaires

Nous irons un peu plus loin en initiation avec les plus grands qui pourront commencer à jouer en mini-orchestre leur musique semi-improvisée !

## LEHEN IRAKASPENAK

***6 - 9 urte artekoak // 11:30>12:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Mathilde Deshaires-ek animaturik



Handiagoekin haratago joan eta musikako lehen irakaspenak irakatsiko dizkiegu. Orkestra ttipian, beren musika erdi inprobisatua jotzen hasiko dira!

## ATELIER DJ/MAO [MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR]

***+10 ans - Adultes // 10h>11h / 11h>12h***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Manu Matthys

Les ateliers DJ/MAO permettent de traverser toutes les étapes de la création de morceaux à partir des composants de la musique électronique. Les participants pratiqueront percussion, mélodie et voix. Ils termineront la semaine par un enregistrement et repartiront avec leur production sur clé USB !

## DJ/OLM TAILERRA [ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]

***+10 urte - helduak // 10:00>11:00 / 11:00>12:00***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Manu Matthys-ek animaturik



DJ/OLM tailerrean, musika elektronikoaren osagaietatik abiatuz, kantu baten sorkuntzaren urrats guztiak ikusteko aukera badago. Gazteek perkusioak, melodiak eta ahotsak landuko dituzte. Astea grabaketa batekin bururatuko dute eta beren produkzioarekin joango dira etxera.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

## Lundi 18 au Vendredi 22 Février // Otsailaren 18tik 22ra, astelehenetik ostiralera



### STAGE MUSIQUE DÉBUTANTS *+ 10 ans - Adultes*
### GUITARE - BATTERIE - CLAVIER

*10h30>11h30 Guitare ou Batterie / 14h>15h Claviers*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par les profs de la Rock Eskola

Pour ceux qui souhaitent découvrir ces instruments ou s'y remettre après des années d'absence. Vous pourrez jouer votre premier rythme, premier morceau à l'issue de ce stage.

### MUSIKA TAILERRAK HASIBERRIENTZAT *+10urte -helduak*
### GITARRA - BATERIA - TEKLATUA

*10:30>11:30 Gitarra edo Bateria / 14:00>15:00 Teklatuak*

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Rock Eskolako irakasleek animaturik



Instrumentu horiek ezagutu nahi dituztenentzat edo urte askoren ondotik berriz jotzen hasi nahi dutenentzat. Ikastaldi honen ondotik, lehen erritmoak eta kantuak jotzen ahalko dituzue.

### STAGE MUSIQUE PERFECTIONNEMENT *+ 10 ans - Adultes*
### GUITARE - BATTERIE - CLAVIER

*11h30>12h30 Guitare ou Batterie / 15h>16h Claviers*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par les profs de la Rock Eskola



Vous avez déjà un certain niveau et vous souhaitez approfondir vos connaissances, améliorer votre technique, aborder de nouveau styles musicaux ou tout simplement prendre du plaisir à jouer, ce stage est pour vous.

### MUSIKA TAILERRAK HOBETZEKO *+10 urte - helduak*
### GITARRA - BATERIA - TEKLATUA

*11:30>12:30 Gitarra edo Bateria / 15:00>16:00 Teklatuak*

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Rock Eskolako irakasleek animaturik

Maila jakin bat duzue baina jakintza sakondu, teknika hobetu, musika mota berriak jo edo sinpleki jotzen plazer hartu nahi duzue? Ikastaldi hau zuentzat da.



### ATELIER DE PRATIQUE COLLECTIVE *+ 10 ans - Adultes*

*14h>15h30*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par les profs de la Rock Eskola

Sur un répertoire de musiques actuelles, venez vous essayer au plaisir de jouer en groupe. Vous avez déjà deux ou trois ans de pratique de votre instrument (basse, guitare, batterie, claviers...) ou vous êtes chanteur ou chanteuse. N'attendez pas pour vous inscrire !

### TALDEAN JOTZEKO TAILERRA *+10 urte - helduak*

*14:00>15:30*

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Rock Eskolako irakasleek animaturik



Gaur egungo kantu zerrenda batean oinarriturik, taldean jotzen ikasteko. Musika tresna (baxua, gitarra, bateria, teklatuak...) gutienez bi edo hiru urtez landu izan behar da edo kantaria izan behar da. Berehala izena eman! Toki kopuru mugatua...

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
yann@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.22

## Lundi 18 au Vendredi 22 Février // Otsailaren 18tik 22ra, astelehenetik ostiralera



### FORMATION MUSICALE APPLIQUÉE *+ 10 ans - Adultes*

*16h>17h*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par les profs de la Rock Eskola

Ce stage s'adresse à ceux que le solfège rebute ou fait peur, il permet d'appréhender les notions rythmiques et harmoniques de base de manière simple et ludique pour vous permettre de déchiffrer des partitions en toute autonomie. Vivement conseillé aux instrumentistes débutants.

### MUSIKA FORMAKUNTZA APLIKATUA *+10 urte - helduak*

*16:00>17:00*

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Rock Eskolako irakasleek animaturik

Solfeoa atsegin ez dutenentzat. Manera sinplean eta ludikoan oinarrizko erritmoak eta harmoniak ulertzeko, eta, hola, partitura batzuk autonomia osoan deszifratzeko. Musikari hasiberrientzat handizki aholkatua.



©Atelier 13

### CIRCLE SONG *+ 15 ans - Adultes*

*17h30>19h*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par les profs de la Rock Eskola

Le Circle Song est un principe de chant en groupe simple et ancien selon lequel un groupe de chanteurs disposés en cercle «fait tourner» un motif chanté de base, inspiré d'influences africaines, latines, groove, folklore traditionnel ou jazz. Les chanteurs improvisent tour à tour. Le Circle Song offre aux chanteurs un contexte privilégié d'écoute, de partage, et d'exploration de l'improvisation vocale. https://bit.ly/2QWnHvT



### CIRCLE SONG *+15 urte - helduak*

*17:30>19:00*

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Rock Eskolako irakasleek animaturik

Circle Song taldean kantatzeko manera sinplea eta zaharra da. Kantariak zutik eta biribilean ezartzen dira, eta oinarrizko kantu doinu bat errepikatzen dute. Afrikar, latino, groove, folklore edo jazz musiken eragina jaso duten aireak izan daitezke. Gero, kantariak inprobisatzen hasten dira. Circle Song ariketak kantariei entzuteko, partekatzeko eta bozarekin ikertzeko eta inprobisatzeko testuinguru egokia eskaintzen die. https://bit.ly/2QWnHvT

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
yann@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.22



### ATELIER ILLUSTRATION *8 - 15 ans*

*10h>12h*

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par MalOjo

MalOjo proposera aux participants de créer leurs propres super héros et super vilains à travers un atelier de dessin mais aussi d'écriture puis de les mettre en scène à la manière d'une vraie couverture de comics ou de manga !

### ILUSTRAZIO TAILERRA *8 - 15 urte artekoak*

*10:00>12:00*

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** MalOjo-ek animaturik

Ikastaldi denboran, MalOjo artistak parte hartzaileei beren super heroiak eta super gaiztoak sortzea proposatuko die, marrazki eta idazketa tailerrean. Gero, egiazko komiki edo manga baten azalean irudikatzea galdeginen die!



**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
jean@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.26

**Lundi 25 Février au Vendredi 01 Mars** // **Otsailaren 25etik martxoaren 1era, astelehenetik ostiralera**



## ÉVEIL MUSICAL

***3 ans 9h30>10h30 // 4 - 5 ans 10h30>11h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Brigitte Edme-Arruartena

S'éveiller à la musique c'est aussi se découvrir des aptitudes d'écoute, d'expression vocale et instrumentale. Vos enfants s'approprient le rythme à travers leur corps, les mélodies et les sons qu'ils entendent et qu'ils produisent. Lors des stages ils pourront aussi confectionner leurs propres percussions ! Tous pourront découvrir entre autres la guitare, le ukulélé, la batterie et le clavier.



## LEHEN HURBILTZEA

***3 urtekoak 09:30>10:30 // 4 - 5 urte artekoak 10:30>11:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

Musikara hurbiltzea entzumen, ahozko adierazpen eta musika tresnak jotzeko gaitasunak deskubritzeko parada da. Zuen haurrek entzuten eta sortzen dituzten melodiak eta soinuak gorputzaren bidez erritmoan adieraziko dituzte. Ikastaldi denboran beren perkusioak fabrikatzen ahalko dituzte! Denek gitarra, ukulelea, bateria eta teklatuak ezagutuko dituzte.



## INITIATION MUSICALE

***6 - 9 ans // 11h30>12h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Brigitte Edme-Arruartena

Nous irons un peu plus loin en initiation avec les plus grands qui pourront commencer à jouer en mini-orchestre leur musique semi-improvisée !

## LEHEN IRAKASPENAK

***6 - 9 urte artekoak // 11:30>12:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

Handiagoekin haratago joan eta musikako lehen irakaspenak irakatsiko dizkiegu. Orkestra ttipian, beren musika erdi inprobisatua jotzen hasiko dira!



## ATELIER DJ/MAO [MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR]

***+10 ans - Adultes // 17h30>18h30 / 18h30>19h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par Fabien Fromage

Découvrir de nouvelles interfaces musicales et tester des nouvelles technologies.
En se familiarisant avec les techniques contemporaines de création et de traitement du son, ces ateliers permettent de découvrir et d'appréhender des horizons musicaux multiples.

## DJ/OLM TAILERRA [ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]

***+10 urte - helduak // 17:30>18:30 / 18:30>19:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** Fabien Fromagek animaturik

Musika interfaze berriak ezagutzea eta teknologia berriak entseatzea.
Sortzeko teknika garaikideetara eta soinu tratamendu berrietara ohituz, tailer honek musika aukera anitz ezagutzeko eta ulertzeko bidea ematen du.



**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

# Exposition Erakusketa

# ANA PAGOLA









«Sérieuse est la vie, joyeux est l'art», telle est la devise d'Ana Pagola.

Née à Pampelune, l'artiste est diplômée des Beaux-Arts de Barcelone.
Dans cette ville, attachée dans l'imaginaire collectif à une perpétuelle Movida, elle a trouvée les ferments de sa créativité. Mais Ana a surtout beaucoup appris seule: à dessiner, en peignant, en mélangeant les textures, comme l'eau, l'encre et l'aquarelle, à travailler les matières.

L'exposition mélangera la partie «Vélasquez» réinventé par Ana Pagola ainsi que ses travaux plus récents constitués de portraits d'enfants réfugiés qui étonnent tant ils contrastent avec le reste de ses œuvres.

Grâce à son expérience, à sa dextérité et à sa joie de vivre, ses peintures deviennent des œuvres fortes et complexes façonnées par ses états émotionnels.

Ana Pagolaren leloa: «Bizia seriosa da. Artea loriosa da».

Iruñean sortu zen eta Bartzelonako Arte Ederretan diplomatua da.
Irudimen kolektiboan mugimendu kontra-kulturalaren epizentroa den hirian, sormenaren pizgarriak aurkitu ditu. Anak bakarrik ikasi ditu gauza gehientsuenak: marrazten, margotzen, testurak nahasten - ura, tindua eta akuarela - , ekaiak lantzen...

Erakusketan, Ana Pagolak berriz asmatu Vélasquez margolanak eta haur errefuxiatuen potreta berriagoak eta harrigarriak uztartuko ditu.

Artistaren esperientziari, trebetasunari eta bizipozari esker, bere margolanak emozioen araberako obra indartsuak eta konplexuak dira.

**Exposition du Samedi 02 Mars au Samedi 25 Mai 2019**
**Vernissage Samedi 02 Mars à 19h**
**+ Concert ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP**

**Martxoak 02 larunbatetik maiatzak 25 larunbatera**
**Estreinaldia martxoak 2 larunbatean,19:00etan**
**+ ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP Kontzertua**

# SAMEDI 02 MARS 20:30 MARTXOAK 02 LARUNBATA

# ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP XXL

Présenté par **ATABAL** & **LE MICROSCOPE**-ek aurkezturik



**ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP XXL**
Prenant le prétexte de ses 10 ans fêtés en novembre 2016, **ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP** joue et voyage aujourd'hui dans une formule extra large, avec 14 musiciens sur scène. Quelques anciens membres du groupe mêlés à de petits nouveaux, poussent l'aventure plus loin, plus haut.
Un nouveau répertoire composé pour la formule **XXL** se mêle à quelques vieux hits réarrangés, toujours dans une veine « tropical post punk ».
Plus de monde, plus d'énergie, plus de joie, d'exaltation, plus de trance, plus de danse !!!

**+ LA MICROCHORALE & VINCENT BESTAVEN**

**+ LITTLE TIGHTER**
*En collaboration avec Einstein on The Beach.*
*Projet soutenu par l' OARA.*

**ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP XXL**
2016ko azaroan hamar urte betetzen zituela aitzakia harturik, orduz geroztik **ORCHESTRE TOUT PUISSANT MARCEL DUCHAMP** taldeak XXL formulan jotzen eta bidaiatzen du. Taulagainean 14 musikari dira, batzuk taldekide zaharrak eta besteak berriak!
Kantu zerrendan, talde zabalarekin idatzi abesti berriak eta birmoldatu betiko kantu arrakastatsuak. Taldearen musika «post punk tropikala» da, beti.
Jende, energia, beroaldi, trantze eta dantza gehiago!!!

**+ LA MICROCHORALE & VINCENT BESTAVEN**

**+ LITTLE TIGHTER**
*Einstein on The Beach-ekin partaidetzan.*
*OARAk sostengatutako proiektua.*

TROPICAL
POST PUNK

♥♥♥
*Thee Silver Mt Zion*
*Beak>*

9€ / 6€ (adh-kide) en loc-aurretik
12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan

*gratuit urririk (adh-kide)*

VENDREDI 08 MARS 20:30 MARTXOAK 08 OSTIRALA

# KOKOKO!
## + LE BAL DU SAMEDI SOIR



